

# Osasun-datu juridikoei buruzko babesa eta kirolean dopatzea

Elena Atienza Macías eta Ekain Payán Ellacuria  
Zuzenbide eta Giza Genomako Katedra Ikerketa taldea, UPV/EHU

Artikulu honen helburua da lagin biologikoen eta datu pertsonalen tratamendutik eratorritako inplikazio juridikoei buruz gogoeta fina egitea; hain zuzen ere, kirol-arloan dopinaren aurkako kontrola lortze aldera. Azkenaldian, kezka nagusia bihurtu da dopatzearen kontrako kontrola erdiestea kirol-lehiaketetan, eta hori gogotik barreiatu egin da gizarte mailan. Izan ere, eztaba daezina da dopinaren eraginak askotarikoak direla: kirolarien osasunean, parte-hartzaileen berdintasun-baldintzetan eta kirolaren bitartez helarazitako balioen galbideratzea eragiteko bitarteko gisa. Horrek guztiak ekarri du hamaika erakunde publikok nahiz pribatuk konponbideak abian jartzea praktika hori ekiditeko; horregatik, oso komenigarria da geure buruari galdetzea ea ezarritako lege-testuinguruak eta kontrolen praktikak bat egiten duten oinarritzko eskubideen babeserako arau orokorrek.

GAKO-HITZAK: Dopina · Osasun-datuen babesa · Lagin eta pasaporte biologikoa · Intimitaterako eskubidea.

## The protection of health data and doping in sport

This paper reflects on the legal implications of the treatment of biological samples and personal data for the purpose of doping control in sport. Over the last few years, doping control in sporting competitions has become a major concern with a significant social impact, given the impact of doping on the health of sportsmen and sportswomen, on the equality of conditions for participants and, finally, as a factor in the “perversion” of the values that are intended to be transmitted through sporting practices. This has led various public and private institutions to develop mechanisms to prevent this practice. It is very opportune for us to consider whether this normative framework and the practice of controls contemplates the more general framework referred to the protection of fundamental rights.

KEY WORDS: Doping · Health data protection · Biological sample and biological passport · Right to privacy.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.109.2019.5>

*Jasotze data:* 2018-07-05

*Onartze data:* 2018-07-25

## Esker ona

Elena Atienzaren lana Eusko Jaurlaritzako Doktoratu Ondoko Programaren barruan sartzen da; hain zuzen ere, Doktoratutako Ikertzaileen Hobekuntzarako, eta horri erabat atxikita dago idazlea. Era berean, honako proiektu hauen laguntza izan da: «BIGDATIUS: datu klinikoen erabilera agertoki teknologiko eta zientifiko berrien aurrean —*Big Data*—. Abaguneak eta inplikazio juridikoak», Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU (Erreferentzia: DER 2015-68212-R, MINECO/FEDER) eta Euskal Herriko Unibertsitate Sistemako Ikerketa Taldeen jarduerak sustatzeko laguntza, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandakoa (Erreferentzia: IT1066-16 zk.).

Ekain Payanen lana Euskal Herriko Unibertsitatean UPV/EHUn Ikertzaileak Prestatzeko Kontratazio Deialdiaren (2016) barruan sartzen da, Euskal Herriko Unibertsitateko UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak bultzatutakoa.

## 1. Sarrera

Amstrong kasu entzutetsuak ekarri zuen inoiz ez bezalako aldaketa kirol-arloan; izan ere, diziplina horretako eragileen dopinari buruzko jarrera erabat aldatu zen harrezkeroztik nazioarte mailan. Zehazki, eta lan honen mamiai dagokionez, arestian aipatutako txirrindulariak aitortu zuen behin eta berriro dopina hartu zuela. Jakinaenez, horrek kolokan jarri zuen dopina kontrolatzeko ohiko sistema: txirrindulari ospetsu horri dopin-analisi asko eta asko egin zitzaizkion kirolean debekatutako substantzia eta metodoen erabilera zein kontsumoa antzemateko, nahiz eta horiek inolako arrakastarik ez izan. Hori gutxi balitz bezala, Amstrongek berak onartu zuen bitarteko horietaz baliatu zela Frantziako Tourra zazpitan irabazteko.

Horrez gain, badira beste gertakari garrantzitsu batzuk ere, eta horiek eragin zuzena izanen dute iritzi publikoan; adibidez, Espainian, Marta Dominguez atletari dopina egotzi zion Nazioarteko Atletismo Federazioak (International Association of Athletics Federations, IAAF), baita Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak (World Anti-Doping Agency, WADA) ere; hain zuzen ere, pasaporte biologikoan irregulartasunak izateagatik. Azken finean, horiek guztiek zalantzan jarri zuten dopinaren aurkako kontrolen eraginkortasuna.

## 2. Pasaporte biologikoa izenekoa

### 2.1. Pasaporte biologikoa mekanismoaren izateko arrazoia

Aurreko atalean deskribatutako kontrol-sistemaren krisiari hertsiki lotuta, zeharkako baliabideak gehitu behar izan dira galarazitako substantzia edo metodoen erabilera aurkitzeko. Izan ere, agerian geratu da kirolarien lagin fisiologikoetan oinarritutako analisiak ez direla aski; batez ere, genu- eta odol-metodo arrunten bitartez debekatutako substantziak igartzeko. Ildo horretatik, kirolariaren pasaporte biologikoa (Athlete Biological Passport, ABP) deritzon sistema bihurtu da dudarik gabe dopina topatzeko zeharkako gailurik berriena eta sofistikatuenena. Dena dela,

argi-argi utzi behar da mekanismo horrek ez dituela inolaz ere deuseztatzen ordura arteko kontrolak; hau da, kirolarien gorputzetan produktu dopatzaileak bilatzen dituztenak. Beste hitz batzuetan esanda, kontrola osatzeko lanabesak dira, edo, doktrina espezializatuak dioen moduan, «estrategia osagarria».

Txirringularen dopin sistematikoaren albisteak 2013. urtekoa dela egia borobila bada ere, zehaztu behar da urtebete lehenago (alegia, 2012ko martxoaren hasieran) Frantziako Parlamentuak lege-proposamena aldarrikatu zuela pasaporte biologikoa kirol guztietan ezartzeko. Hori indarrean sartu zen 2013ko uztailaren 1. egun, beti aplikatzen zaie goi-mailako kirolari orori: bai, profesionali, bai behe-mailako kategoriei; gainera, zehapenak ere aurreikusten dira, eta horien artean larriena da lehiaketetan parte hartzeko biziarteko zigorra<sup>1</sup>. Data horren aurretik, tresna hori ezarri zuten hainbat kirol-erakunde<sup>2</sup>. Horietan aitzindari izan zen Txirringularen Nazioarteko Batasuna (Union Cycliste Internationale, UCI), zeina lehenengoz ezartzen hasi zen 2008ko urtarrilean —eta halaxe izan behar zuen, txirringularen testuinguruan gertatutako dopin-kasu ugariak sortutako ezinegona dela-eta—. Ekimen horri jarraipena eman zioten hurrengoek: lehenik, Erresuma Batuko Dopinaren Aurkako Agentziak (United Kingdom Anti-Doping, UKAD), pasaporte biologikoa erabilera 2010eko otsailaren 1. onartu zuenean; bigarrenik, Nazioarteko Atletismo Federazioak (International Association of Athletics Federations, IAAF) 2011ko Munduko Txapelketan (Daegun), non norgehiagoka horretako parte-hartzaile guztiei (bi mila lagun ingururi) pasaporteari lotutako analisiak egin zitzaizkien; eta, hirugarrenik, Nazioarteko Igeriketa Federazioak (Fédération Internationale de Natation, FINA) beste horrenbeste egin zuen 2011ko Munduko Txapelketan (Shanghai), pasaporte biologikoa 2011ko uztailaren 31. onartu zuenean.

Bukatzeko, azpimarratu behar da Londres 2012ko Olinpiar Jokoen (Hunter, 2011: 553) barruan ezarri zela lehen aldiz<sup>3</sup> pasaporte biologikoa udako Olinpiar Jokoen; hain zuzen ere, Nazioarteko Olinpiar Batzordearen (COI) oniritzia jaso ondoren. Alabaina, pasaporte biologikoa bakar-bakarrik erabili ahal zen kiroletan, baldin eta nazioarteko federazioek horietan alde aurretik kontrol-sistemak ezarri bazituzten; berbarako, horixe gertatu zen atletismoarekin, txirringularenekin, triatloiarekin, pentatloi berriarekin, arraunarekin eta igeriketarekin (Zorzoli, Pipe, Garnier eta Dvorak, 2014: 862-866).

---

1. Horren harira, Frantziak ezinbestekoa da pasaporte biologikoa goi-mailako kirolari guztientzat. Ikus Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia (AEPSAD) (2014).

2. Jatorriari dagokionez, nabarmendu behar da markagailu biologikoa erabiltzen hasi zirela 80ko hamarkadan; hain zuzen ere, atleten txizan esteroide anabolizatzaileak detektatzeko. 1997an, Txirringularen Nazioarteko Batasunak (UCI) eta Eskiko Nazioarteko Federazioak baneratu zituzten odol-markagailuak EPOren abusua zehazteko; izan ere, garai hartan ezinezkoa zen hori ezagutzea bide zuzenen bitartez. 2002az geroztik, «pasaporte biologiko» hitza erabiltzen hasi zen eta hori behin betiko onetsi zen 2008an (Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia (AEPSAD), 2014).

3. Helder Ornelas iraupen-lasterkari portugaldarra lau urtez zigortu zuen Portugalgo Federazioak dopinaren aurkako arau-haustea dela-eta; hori dela-eta, zigortutako lehen atleta bihurtu zen bere pasaporte biologikoa eskaintako datuak oinarri hartuta. Ikus (Teixeira eta Rigo, 2015: 500-501).

## 2.2. Kontzeptualizazioa

Era guztiz adierazgarrian erabaki zen zein modutan deitu behar zen dopina zeharka kontrolatzeko bide hori: pasaporte biologikoa. Horrexek badauzka zenbait antzekotasun ohiko pasaportearekin; beste era batean esanda, herritar arruntak erabiltzen duena estatu batetik bestera bidaiatzeko eta bertako agintari eskudunek behar bezala identifikatu ahal izateko<sup>4</sup>. Hala ere, dokumentu hori kirol-mailari berenberegiz atxikita dago, eta ez ditu bakarrik kirolariak identifikatzen, ezpada horien guztien arteko joko garbiaren isla izan nahi duela. Izan ere, testu horretan ederki asko jasotzen dira kirolari bakoitzari egindako analisien emaitzak; horri esker, posible da espezialistek kirolariaren profila osatzea, dela hematologikoa, dela gernu-izaerakoa, substantzia dopatzaileek eragindako aldaketan jakitun izateko.

Zehatzago, pasaporte hori berezitasun jakinetan oinarrituta defini daiteke; izatez, gizabanakoaren dokumentua da, non kirolari bakoitzari egindako analisien emaitzak batzen diren, bakoitzaren faktore heterogeneoak ere bai. Hiru profil desberdin sortzen ditu gailu horrek; horretarako, abiapuntu ezin hobeak dira gernu- eta odol-kontrolen emaitzak (hematologikoak, esteroideak eta endokrinologikoak, hurrenez hurren). Horiek oinarri hartuta, zorrotzasunez neur daitezke kirolari jakinaren organismoko parametroak, eta horien jomuga da profil horren eta aurrekoaren arteko konparaketa sakona egitea, ezohiko aldaketa gertagarriak ezagutze aldera (Amilibia, 2012). Beraz, profil horien bitartez zuzenki jakin daiteke kirolari bakoitzaren parametroek zer-nolako bilakaera jasan duten. Horrexek, aldi berean, maiz erraztuko du jazotako ohiz kanpoko aldakuntzak eta horien arrazoiak garaiz hautematea; esate baterako, praktika dopatzaileen ondoriozkoak.

Ohiko kontrol-sistemarekin erkatuz, desberdintasun nagusia da lehenengo horretan ez zela bilatzen kirolariaren gorputzean debekatutako substantziarik: asmoa ez zen berez positiboak ematea, baizik eta konstanteen gorabeherak ikuskatzea, baldin eta horiek aditzera eman ahal bazuten dopinaren kontra tipifikatutako arauak urratu izan zirela. Hori horrela, ez zen beharrezkoa analisien emaitzak egitea, harik eta galarazitako substantzia batek kirolariaren gorputzean sartu zela egiaztatu arte; haatik, nahikoa zen horren profiletan aldaketaren bat aurkitzea diziplinazko prozedurari ekiteko. Bestalde, zuzenean detektatzeko sistema erabiliz, zail samar izaten da behin-behinean kontsumitutako dosi txikiak topatzea; izan ere, kontuan izan behar da gorputzak azkar ezabatzen dituela eta testak behin baino ez direla egiten. Aldiz, substantzia horien efektuek askoz gehiago irauten dute kirolariaren parametro biologikoetan, substantziak berak euren gorputzetan baino. Edonola ere, garbi utzi behar da aldaketa baten zergatia ez dela zertan dopina bakarrik izan. Areago, baliteke hamaika zioren arteko kateamendua izatea; esaterako, tratamendu mediko berezitua jasotzea edo gaixotasuna pairatzea, horrek kirolariaren maila biologikoari eragiten dionean. Azkenengo alde hori xehetasunez aztertuko da atal kritikoa.

---

4. Gilbertek argitu du, egunotan, pasaporte biologikoa halabeharrez eskatzen zaiela kirolari askori goi-mailako lehiaketetan parte hartzeko; gauza bera gertatzen da pasaportearekin atzerriko herrialdeetan sartu ahal izateko (Cfr. Gilbert, 2010: 18-19).

Hitz lauz esanda, lanabes horren xedea da debekatutako substantzien kontsumoa geldiaraztea edo kirolean metodo gaitzesgarrien erabilera bertan behera uztea. Izan ere, aski da kirolariaren parametroak pixka bat aldatzea hori gogorki zigortzeko, galarazitako substantziarik detektatu ez arren. Horrenbestez, esan daiteke prebentziozko tresna paregabea dela ageriko jarduera ezegokiak saihesteko<sup>5</sup>.

### 2.3. Espainiako eta nazioarteko lege-esparrua

Alde batetik, Espainia mailan, nahitaezkoa da 3/2013 Lege Organikoa ekartzea. Horrek aurrenekoz ezarri zuen pasaporte biologikoa frogabidetzat erabiltzeko aukera, baina ez zuen horren estatutua juridikoa definitu, ezta horren abiarazpena edo funtzionamendua arautu ere, Espainiako aginpideek aurrera eraman zezaten. Lege horren 1.3 artikuluari so eginez, manu horretan zehatz-mehatz jasotzen da kasuan kasuko nazioarteko federazioaren eta Dopinaren aurkako Mundu Kodearen (aurrerantzean, DMK) arauen eta prozeduren menpe daudela bai nazioarteko kirolari ofizialak, bai maila horren parte-hartzaileak, pasaporte biologikoari dagozkionak ere barne hartuz, azken horiek izatekotan. Bestalde, 39.4 artikulua adierazten du administrazioak eta ustezko kaltetuak zuzenbidean onartutako frogabide guztiak erabil ditzaketela dopinaren arloko zehapen-prozeduraren barruan, pasaporte biologikoa ere bai, baldin eta horri buruzko daturik balego. Froga horiek batera balioetsi beharko dira, irizpide kritikoen arauekin bat etorritz.

Bestetik, nazioarte mailan, 2015eko DMK jorratu behar da, non dopina baztertzeko orotariko neurriak pilatzen diren. Gauzak horrela, kodeak indarrean sartu izanak bereziki berrindartu du froga adimendunak egiteko parada, eta hori bada dopina modu eragingarriagoan kontrolatzeko hobekuntza aipagarria. Izatez, kirolariaren pasaporte biologikoa bada froga estrategikoagoa ziurtatzeko baliabidea. Ildo horri utsiz, DMKren 3.2 artikulutik eratortzen da pasaporte biologikoa frogabidetzat erabil daitekeela: edozein bitarteko fidagarria erabiliz froga daitezke dopinaren aurkako arau-hausteen gertakizunak, aitortzak barne. Xedapen horretatik haratago doa DMKren 2.2 artikulua, horrexek esaten duenean dopinaren aurkako erakunde batek dopinaren kontrako arauen haustura zehatz dezakeela (debeekatutako substantzia edo metodoaren erabilera edo saiakuntza); horretarako, oinarri izango dira kirolariaren gerru- edo odol-laginetatik ateratako ondorioak, baita horren pasaporte biologikotik eratorritako datuak ere. Azken horri jarraiki, eta DMKren osagarri gisa, garrantzitsua da azpimarratzea Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak hainbat irizpide argitaratu zituela pasaporte biologikoaren (*Athlete Biological Passport Guidelines* deritzonaren) funtzionamenduaren gainean. Helburu nagusiak dira pasaporte biologikoari buruzko programen harmonizazioa, informazioaren hartu-emanen erraztea eta datuak elkarri onartzea, horien eraginkortasuna suspertze aldera. Hori dela-eta, eta DMKren irizpide orekin bezala, dokumentua etengabe berrikusi eta ebaluatuko da, harik eta jardunbide egokienak dituela bermatu arte.

---

5. Urruntze-efektu horri (*deterrence effect* delakoari) buruz luze eta zabal hitz egin zuten honako egile hauek: Viret (2015: 728) eta Gleaves (2010: 191). Bitarteko horren hasierako eraginari buruz: *cf.* Vernec, 2014.

## 2.4. Balorazio kritikoak

Pasaporte biologikoa dela eta ez dela, eztabaida sutsuak piztu izan dira; hain zuzen ere, Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak 2002an horren sustapena eta ezarpena iradoki zuenetik. Izan ere, dopinaren kontrako borrokan alboraezina eta geroraezina da babestutako interesen eta ondasun juridikoen arteko neurritasuna mantentzea deskribatutako sistema hori era egokian eta zuzenean aplikatzeko. Horri gutxi iritzi eta, kontuan hartu behar da doktrinaren atal batek<sup>6</sup> baieztatutakoa: «Suitzan (dopinaren aurkako exekutibo nagusiek) edozerk balio duela diote». Ideia horri helduz, pasaporte biologikoa gogor kritikatu izan da DMK-k horri buruz jasotako esanahi zabalagatik. Hain justu ere, galarazitako substantzien eta metodoen erabilera ziurtatzeko bide erabilgarriak hain dira handiak, ezen horietako edozeinek balio baitu dopinaren aurka egiteko. Adiera amaigabe horren atzean, dopinaren kontrako oinarrizko zutabea da kirolariaren osasuna zalantzarik gabe babestea. Era horretan, Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak ez zuen agerian jarri inolako interesik atletaren osasuna defendatzeko, pasaporte biologikoaren irizpide nagusiak ezagutarazi zirenean. Kontuak kontu, bidezkoa da horren alde onak eta txarrak balioestea.

Lehendabizi, balorazio positiboa egin beharra dago: hautabide aproposa izan daiteke zuzenean detektatzeko sistemaren mugak gainditzeko. Modu horretan, egungo sistemaren kontrolak baliagarriak dira kirolariari hartutako laginetan debekatutako substantziak edo horien metabolitoak nahiz markagailuak aurkitzeko; dena den, mugak egon, badaude. Horietako bat da bioteknologiaren etengabeko garapena; hargatik, detekzio-sistemak beti doaz horren atzetik, eta nabariki oztopatzen dute prebentzio-fasea. Ez da ahaztu behar metodoaren izateko arrazoa dela galarazitako substantziak eta metodoak jazartzea, DMKren 4.3.1 artikuluko irizpideekin bat datozenak ere bai. Halaber, zailtasun galantak daude substantzia endogenoak eta exogenoak bereizte aldera; izan ere, giza gorputzaren antzeko egitura molekularreko substantziak sortu izan dira kontrolak oharkabean pasatzeko. Bestalde, substantzien eraginak askoz gehiago hautematen dira denboran zehar biomarkagailuen bitartez (zeharkako detekzioa), gorputzean baino (zuzeneko detekzioa). Ezin da alderatu debekatutako metodoak noizbehinka eta dosi txikitari hartzeak substantzien antzematea zailtzen duela, baina biomarkagailuen aldaketak badira detektagarriak.

Bigarrenez, zeharkako detekzioak esan nahi du ez direla zertan metodo berriak asmatu substantzia bakoitza identifikatzeko; bestela esanda, hori ez da dopinari aurre egiteko konponbide bakarra. Zentzu horretan, pasaporte biologikoa erabil daiteke baliabide osagarritzat, kirolari susmagarriek galarazitako portaerak betetzen dituztenean; horrek ahalbidetuko eta zilegi egingo luke horien gainean programatutako kontrolak gauzatzeko.

Aurrez aurrekoak dira lanabes horren ezegokitasunak: hori ezartzeko kostu ekonomiko altua, bat aipatzearen. Horrekin batera, pasaporte biologikoaren izapide burokratikoak kopurutsuagoak dira, baldin eta gaur egungo sistemarekin

---

6. Ikus hurrengo lan sakona: Amilibia, *op. cit.*, 11. or.

konparatzen bada; horren lekuko da jatorrizko laborategietan egindako analisien frogak Lausanako (Suitzako) Laborategira bidali behar izatea, jarraian Adituen Batzordera lekualdatzeko.

Bestalde, jakitun izan behar dugu pasaporte biologikoaren funtsa zein den; hain zuzen ere, norbanako bakoitzaren berezitasuna eta fisiologiaren banakotasuna. Horrexegatik, kontuan izan beharko litzateke kirolari bakoitzari zein modutan eragiten dion, eta ez faktore orokor gisa, berme guztiekin aplikatzea nahi bada, bederen. Hortaz, ez da garaiz kanpoko galdetzea nola jakin daitekeen faktoreen eragin zehatza; kasurako, altueran entrenatzen denean zein ondorio izan daitezkeen organismoan, edo beste horrenbeste arrazaren arabera.

Orobat, ohartarazi behar da nahikoa dela kirolariaren profiletan irregulartasunak sumatzea dopin-zantzua osatzeko, horren goputzean substantziarik topatzeko beharrik gabe. Logika horri jarraituz, pasaporte biologikoaren ereduak dopina suertatzeko aukera baino ezin du adierazi. Beraz, balizko sistema hori ez da gai urrapena erabateko ziurtasunez salatzeke, eta horrek dakarrena da erantzukizun objektiboa egitezko aurrekariak baino gehiago hedatzea. Probabilitate hori ezin da batere onartu dopinaren kontrako sistemaren testuinguruan: araugintza hain errepresiboa izanda, hori detektatzeko metodoek are koherenteagoak eta zorrotzagoak izan behar dute; hori horrela izan ezean, kirolarien bizibidea arriskuan jarriko litzateke.

Jarraitzeko, sistema berriarekin kirolariari sortutako babesgabetasun-egoera zein den esaterik ez dago. Izan ere, zuzeneko detekzioaren sistemarekin zail-zaila izaten da leporatutako substantzia hartu ez duela frogatzea, baldin eta hori bere organismoan jada aurkitu badute (*probatio diabolica*); ordea, oraindik ere gaitzagoa da azaltzea zergatik bere laginak bitxiak diren, horietan substantziarik topatu ez denean. Nabaria denez, zeregin zinez nekeza bihurtzen da nork bere burua defendatzea.

Hori guztia dela medio, ulergarria da doktrinak<sup>7</sup> esatea «ez gai» kalifikazioa eta horren ondoriozko etenaldia presazkoak eta bidegabekoak direla eta kirolariaren eskubideak zapaltzen dituztela. Gogoan izan behar da lehiaketan zati izateko ezgaitasuna dakarrela, baita aldi bateko zigorra ere, betiere horren erruduntasuna frogatu gabe. Orduan, kaltea bera da dopinaren aurkako erregulazioa hautsi edo ez (norgehiagokan partaide izateko ezintasuna). Inguruabar horiei guztiei erreparatuz, esan dezakegu aurreiritziak begi-bistakoak direla.

Ezbairik gabe, sistema horrek eragindako arazo kezkarriena da errugabetasun-presuntzioa ezerezean uztea (are gehiago, zuzenbidean lanean dihardugunontzat): horren orde, erruduntasun-presuntzioa ezarri dute, nahiz eta ez betetzearen objektu ez izan (kirolari baten laginean debekatutako substantzia aurkitzea, dela metabolitoena, dela markagailuena, edo galarazitako metodoak topatzea) edo analisien emaitzak okerrak izan; izan ere, nonahi agertzen da «positibo faltsuen»

---

7. Ikus berriz ere Amilibia, *op. cit.*

edo «negatibo faltsuen»<sup>8</sup> arriskua. Labur esanda, badirudi kirolariaren eskubideak urratzea baimentzen dela kirol-justiziaren «joko zuzena» nozioari erreferentzia eginda.

### 3. Norbanakoen intimitaterako ondorioak

Duda-mudarik gabe, dopinaren kontrako politikaren eraginik ustekabekoena da oinarrizko eskubideen muina kolokan jartzea —eta hori, noski, ez dute ondo hartu juristek—. Etsenplurik nabarmenenak hauexek dira: dopinaren arloan aurkitzeko moduan egoteko betebeharra eta lehenago finkatutako leku ezagunetan egoteko betebeharra urteko egun guztietan, lehiaketatatik kanpoko dopin-kontrolak ezustean ezartze aldera.

Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziak (AEPSAD) itzulitururik gabe artatu behar du, haien funtzioen jardunean, eta legearen espirituarekin bat etorritik, egindako kontroletan gutxieneko esku-hartze eta proportzionaltasun-printzipioak betetzea; horiek osoki errespetatzen direnean, bermatuko da kirolarien gaueko atsedean ona eta, oro har, haien eskubideen eta intimitatearen babesa. Horrek azaltzen du nondik datorren kontrolak egiteko ordu-muga ezartzea. Ez hori bakarrik, 11. artikulua lehenengo atalak ekartzen du berrikuntza garrantzitsua<sup>9</sup>; batez ere, hori aurreko arauarekin erkatzen bada, dopinaren aurkako kontrolak egiteko irismenari eta moduari dagokienez: alde batetik, kirolarien oinarrizko eskubideak eta Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentziaren beharrezko materialak bateratu behar dira, norgehiagokatik kanpoko kontrolak bereziki zainduz; bestetik, 15. artikulua hirugarren atalak diosku kontrolen garapena egin behar dela kirolarien oinarrizko eskubideak zeharo errespetatuz, eta hortxe ageri da intimitaterako eskubidea.

Esanak esan, nor bere buruari galdegin behar dio gizabanakoaren osasuna eta osasun publikoa babesteak berekin ezinbestean dakarren lokalizazio iraunkorra eta subjektuen intimitaterako ondorioak bidezkotzea; halandaze, ez da sekula santan ukatu behar tratamendu ez kaltegarriak eskura izateko aukera, eta horiek dopinaren kontrako politika indargabetzea osasuna babestu nahi denean.

Aurrekari horiek guztiak aintzat hartuta, baieztatu daiteke kirol-esparruko dopinaren aurkako borrokak oinarri duela dopinaren kontrako erakundeek kirolariei dopin-kontrolak egitea; batik bat, lehiaketatik kanpo. Horretarako, nahi eta nahi ez jakin behar da kirolaria momentu bakoitzean non dagoen. Premisa horren eraginpean, zenbait erakundeek galdatzen dute atletei lokalizazio *iraunkorra* jartzea. Hori bai, pentsatu beharra dago justifikagarria litzatekeen kirolariak lokalizatzeko beharrezko egotea: horrek ekarriko luke haien intimitatean muturra sartzea osasuna babesteko, eta azken hori izan dugu aztergai. Era horretan, bi ikuspegietatik landuko dugu kontua: bata, norbanakoen osasunetik; eta bestea, osasun publikotik.

---

8. Problematika horri buruz ikus Elbea eta Overbye (2014: 227-240) eta Sanchis-Gomar, Martínez-Bello, Gómez-Cabrera eta Viña (2011: 1.413-1.415).

9. Horren berri eman zuen Fernández de Casadevante-k (2014: 90-91).



Hori guztia hobeto ulertzeko, Biologiaren eta Medikuntzaren aplikazioen aurrean Giza Eskubideak eta Gizakiaren Duintasuna Babesteko Hitzarmenera (Giza Eskubideei eta Biomedikuntzari buruzko Hitzarmenera) jo behar dugu, Oviedon 1997ko apirilaren 4an<sup>10</sup> egindakoa. Horrexek 10. artikuluan zehazten du: «Edozein pertsonak eskubidea izango du bere bizitza pribatua errespetatua izateko, bere osasunari lotutako informazioak direnean». Horrenbestez, exijitzen du ekintza guztiak pertsonen oinarrizko eskubideak bete-betean errespetatzea, intimitaterako eskubidea ere bai. Horrez gainera, ez da ahanzi behar Giza Eskubideen Europako Hitzarmenak sustatutako oinarrizko xedapena; zehatzago, testu horren 8.1 artikulua, non «bizitza pribatua eta familia artekoa, bizilekua eta helbidea errespetatzeko» eskubidea ezartzen den. Ikuspuntu horretatik abiatuta, gizabanakoen ezaugarri genetikoaren inguruko datuak, baita horien osasun-egoera ere, inolako ezbairik gabe dagozkio subjektu bakoitzaren pribatutasun-eremu hertsienari<sup>11</sup>; hortaz, pertsona fisikoaren intimitateari dagozkio. Horregatik, horiek guztiak atzemateak, ezagutzen saiatzeak edo zabaltzeak gehien-gehienetan eragin dezake intimitatean bidegabe sartzea (De La Iglesia, 2014: 436-437). Horrexek —eta eskakizun horrekiko koherentzia eta koordinazioa mantentzeko— ezin hobeto azaltzen du zer dela-eta osasun-arloko egitura arau-emaileak ezartzen duen historia klinikoen izaera sekretua; gehiago dena, eduki hori goitik behera barneratzen da osasun-langileen sekretu profesionallean.

Agente edo osasun-arloko profesionalen sekretuari zuzen-zuzenean lotuta, zalantzarria da zer gerta daitekeen, euren lanbidez baliatuta, kirolariaren intimitateari dagozkion datuak ezagutzen dituztenean; batez ere, dopinaren aurkako portaerak igartzen dituztenean. Bestera esanda, zer gertatzen den dopinaren kontrako kontrolaren emaitza positiboa denean eta hori kontrol-agenteek ezagutzen ez dutenean: sekretua mantentzeko betebeharra daukate datu horiekiko? ala horiek barreiatzea justifikatuta legoke? Ulertzen dugu datuak isilean gordetzeko betebeharrak horren salbuespena agertzen dela zigor-prozesuaren testuinguruan; izan ere, Prozedura Kriminalari buruzko Legeak (aurrerantzean, PKL)<sup>12</sup> ezarritako adierazpena egiteko betebeharren salbuespenak ez ditu barne hartzen osasuneko profesionalak. Ondorioz, beti behartuta egongo lirake kirolariaren intimitateari dagozkion datuak jakinaraztera, horiek euren bizibidearen barruan ezagutu dituztenean. Beste testuinguru batean, bidezkoa litzateke datuak hedatzea, horiek jarrera ez zilegitik datozen heinean. Egunotan, 7/2006 Lege Organikoak zabaldu zuen zigorren sailkapena; hain zuzen ere, administrazio-zehapenetik zigor-esparrura, baina ez kirolariari berari (momentuz). Horrexek zigor-erantzukizuna dakar, interes orokorreko inguruabarra egotea ere bai; ez bakarrik pertsonen osasunean (Romero,

---

10. 1. artikuluan honako hau ezartzen du: «Hitzarmen hau sinatu duten alderdiek gizakia bere duintasunean eta nortasunean babesteko dute eta pertsona guztiei beren osotasunaren eta oinarrizko beste eskubide eta askatasunen errespetua bermatuko diete, inolako bereizkeriarik egin gabe, biologiaren eta medikuntzaren aplikazioei dagokienez».

11. Hori luzeki lantzen da monografia honetan: Nicolás, 2006.

12. Testu horretan, salaketa aurkezteko betebeharra arautzen da erregela orokor gisa PKLren 262. eta 263. artikuluetan. Horretatik askatzen dira makina bat ogibide (abokatuak, prokuradoreak, elizgizonak eta kultu ministro disidenteak), baina ez beste hainbat profesional; horien artean, medikuak. Hori ikusita, esan daiteke medikuak ez daudela salbuetsita salatzeako eginbeharretik, baldin eta hitzez-hitzezko esanahia interpretatzen bada, bederen. Ikus Gómez Rivero (2011: 1.508) eta Romeo (2003a: 959-990).

2003b: 1-13) daukan eraginagatik, heziketaren balioagatik eta kirola<sup>13</sup> egiteagatik ere gizartean.

Politika horren justifikazioa berrartuz, kirolarien osasun indibiduala arakatu behar dugu lehen-lehenik. Biziki zehaztu behar da osasunaren babesa Espainiako Konstituzioaren (aurrerantzean, EK) 43. artikuluan ezartzen dela; beraz, ez da oinarrizko eskubidetzat jotzen. Edozein kasutan ere, Konstituzio Auzitegiak (aurrerantzean, KA) askotan lotu du osasuna gainerako eskubideekin; sarritan, osotasun fisikoarekin, geroago, *de facto*, oinarrizko eskubide-maila emateko<sup>14</sup>. Modu horretan, osasunaren eginkizun erabakigarria aitortzen da pertsonaren babesean eta duintasunean. Hori dela kausa, oinarrizko eskubideak behar bezala artatu behar dira: bata, intimitate-eskubidea; bestea, osasun-eskubidea. Halere, alor horretan azpimarratu behar dugu eskubide horien subjektu aktiboa pertsona bera dela; hain zuzen ere, lokalizazio iraunkorra ezartzen zaion kirolaria. Gauzak horrela, bi oinarrizko eskubideak pertsona berari dagozkio, eta ez du ematen horien arteko ponderazioarekin bete-betean asmatu denik. Behin puntu horretara helduta, ezinbestekoa da *interesdunaren erabateko adostasuna* lortzea, horren osasun indibiduala babestu nahi den neurrian —beste kontu bat izango litzateke osasun publikoa jokoan balego, ondoren ikusiko dugunez—. Izan ere, horren borondatea zein den egiaztatu behar da, eta hori adierazi behar da adostasunaren bitartez; hori egin ezean, jarrera paternalista nagusituko litzateke, eta hori gaindituta dago jadanik.

Idea hori borobiltzeko, KAK jarraian datorrena baieztatu zuen 154/2002 epaian, uztailaren 18koan: «Interes berezia hartu zuen adingabeak *autodeterminazio eskubidea* egikaritzea, bere gorputzean kanpo esku sartzeari aurre egin zionean. Eskubide horren objektua da gorputzaren substratua —horrek ez du bat egiten osasunerako edo bizitzarako eskubidearekin— eta horren konstituzio baliokidea da osotasun fisikorako oinarrizko eskubidea (EKren 15. artikulua)».

Hori guztia ikusita, eta KAren<sup>15</sup> doktrinaren arabera, ondorioztatu behar da kirolarien adostasuna hil ala bizikoa dela euren oinarrizko eskubideetan muturra sartu ahal izateko, euren osasun indibiduala babeste aldera, hori lokalizazio iraunkorreko betebeharretik eratortzen denean.

Alta, norbanakoaren borondateari dagokionez, halabeharrez aipatu behar da osasun-mailan hamaika salbuespen daudela osasun publikoaren babes utziezinari jarraiki. Egoera hori estu lotzen da dopinarekin; izan ere, hori hartzen da osasun publikoko arazotzat, eta horrelaxe uler daitekeela 7/2006 Lege Organikoaren zioen azalpenetik: «Dopinak nola edo hala eragiten die bai kirolari profesionalei, bai normalean edo noizbehinka kirol jarduerak egiten dituztenei, baita oinarrizko kirol

13. Horrela ere ulertzen du De La Iglesia-k, *op. cit.*, 437.-438. or.

14. KAren 35/1996 epaiak, martxoaren 11koak, honakoa aldarrikatu zuen: «Osotasun pertsonalerako eskubidean guztiz sartzten da osasunerako eskubidea, edo, hobeto, osasun pertsonala ez kaltetzeko eskubidea». Ikus gai horri buruzko gogoeta interesgarriak: Rodríguez García, 2011: 181-248.

15. Horrela, KAren jurisprudentziak honakoa ebatzi zuen 120/1990 epaian, ekainaren 27koan, gizabanakoaren osotasun fisiko eta moralari buruz pertsonen osasunari dagokionez: «Osotasun fisikoak eta moralak ederto babesten du pertsonaren bortxaezintasuna, ez bakarrik bere gorputza edo espiritua lesionatzeko erasoen aurka, ezpada ondasun horien kontrako edozein motatako esku hartzetik, horiek titularren adostasunik ez dutenean».

jarduerari ere, eta hori egiten dute milioika pertsona geure herrian atsegin hartzeko eta osasunerako». Espainiako Estatuan, legelaria osasun publikoa babestearen alde agertu zen dopinaren aurkako borrokaren arloan; horretarako, 361 bis artikulua jatorrizko bertsioa berrezarri zuen Zigor Kodean, non ekintza zehatzak tipifikatu zituen; hain zuzen ere, 7/2006 Lege Organikoa zenaren osasun publikoaren kontrako delituen barruan. Delitu horren azken muga da edozein kirolariren osasuna babestea, dela lehiaketan, dela lagunartean. Era horretan: «Arau haustea zein subjektu pasibok egin eta horrekiko edozein murrizketa ulergaitza izango litzateke, kirol jarduera oso-osorik jarri behar delako pertsona guztien eskura; horretarako, bakoitzaren nahiak eta gaitasunak erabat errespetatu behar dira, lehiakor edo aisialdiko jardueren aniztasuna ere bai, horiek antolatuta edo banakakoak izan» (ikus Cortés, 2007: 65).

Behin *osasun publikoaren* konstituzionaltasuna onartuta, bazterrezina da ondasun juridiko horrek eta kirolarien intimitaterako oinarritzko eskubideak talka egiten dutela, eta azken horrek erreklamatzeko du konponbide saihetsezina. Hori lortze aldera, kontuan izan behar da zein den oinarritzko eskubide jakinean esku hartzeko garrantzia eta horrekin zein helburu lortu nahi den; kasu horretan, osasun publikoaren zaintza. Horixe egin behar da kirolarien intimitaterako eskubidea —lokalizazio iraunkorra ezartzeko betebeharra egokitu zaienean— eta osasun publikoaren babesa uztartu behar direnean.

Ildo horretan sakontzeko, doktrinaren (ikus sakonago Rodríguez García, 2011: 181-248) zati batek ulertzen du oso garrantzitsua dela lokalizazio iraunkorraren eragina kirolarien intimitaterako eskubidean zein berekin dakarren eskubide horren funtsezko edukia urratzea. Bien bitartean, —eta arrazoi anitz tartean direla— badirudi osasun publikoa ez dela batere suspertzen lokalizazio iraunkorrerako betebeharra egonda, nahiz eta ukalezina izan guztion osasuna jomuga garrantzitsua dela.

Alde batetik, osasun publikoa babestea edozein kirolariren babes hutsetik harago doa, azken horrek lehiatzeko edo aisialdirako egin arren. Modu horretan, osasun publikoak hobera egingo luke, baldin eta dopinaren aurkako borrokak barnebiduko balitu *kirol jardueren parte-hartzaile oro*, nahiz ohikoak, nahiz aldizkakoak. Ezaguna denez, errealitatean ez da hala izaten: dopin-kontrolak *soil-soilik egiten zaizkie eliteko edo goi-mailako kirolariei*, salbuespenak salbuespen, eta horietatik gutxi batzuei baino ez zaie zehapena ezartzen dopinagatik.

Bestetik, bere horretan utzi da datu guztiak lagatzeko betebeharra kirolariak lokalizatze aldera. Horrek, aldi berean, eramaten du osasun publikoa hobetzeko neurri zehatz eta ganorazkoak ez hartzera, eta horren seinale esanguratsuak dira dopinaren kontrako kontrolak. Horrek guztiak esan nahi duena zera da: kontrol horiek *izatez gertagarriak* direla, baina, funtsean, nekez ziurtatu daitekeela horiek eragingarritasunez egiten direnik.

Doktrina horrekin bat eginez, ondoriotzat atera daiteke kirolariak lokalizatze eginbeharrak oso eragin eskasa duela osasun publikoan: balio bi-biak bata bestearen aurrean jarrita, esan daiteke sakrifizio handia dakarrela kirolarien intimitaterako eskubidearentzat; kontrara, sakrifizio horren trukean lortutako etekina oso baxua

da osasun publikoarentzat (ikus Rodríguez García, 2011: 181-248). Pasaporte biologikoari dagokionez, arestian esan bezala, eztabaidagai hori ez da aurreikusten ere eta iskin egiten zaio kirolariaren osasunari ekiteari. Horrelaxe ulertzen da Pasaporte Biologikoaren Gidalerro Operatiboen aurkezpenetik, non Dopinaren Aurkako Munduko Agentziak ez zuen inolako interesik erakutsi atletaren osasuna babesteko. Horretan oinarrituta, onartzen da eskubideak mugatzea, bidezko interesen batek hori egitea justifikatzen duenean; hala eta guztiz ere, dirudienez, ez du ematen hori gertatzen denik pasaporte biologikoaren kasuan. Hori horrela delakoan —eta kasu horri eta egungo baldintzei erreparatuz—, zuhurtziaz defendatu dezakegu kirolarien intimitaterako eskubidea gailendu behar dela osasun publikoaren gainetik; izan ere, ez da proportzionaltasuna esangura hertsian betetzen, horiei behartzen zaienean dopinaren kontrako erakundeei datuak erraztera lokalizazio iraunkorra ezartzeko.

Horren inguruan, bere iritzia eman du doktrinaren atal batek<sup>16</sup>; hain zuzen ere, Molina Navarretek, eta horren erantzuna irmoa da: «Norgehiagokatik kanpoko kontrolen legezkotasuna beti bateratu behar da kirolariek euren bizitza pribatua kontrolatzeko oinarritzko eskubidearen errespetuarekin, kontrol horiek ustekabean egiten direnean; hortaz, lanetik kanpoko uneetan. Hori horrela izan behar da, neurri batean behintzat, geure kulturen zuzenbidea aintzatesteko»<sup>17</sup>. Ikuspegi horretatik, beti beharrezkoa da proportzionaltasun-epaia mantentzea, nahiz eta kirolari eta joko garbiari berariaz lotutako muga gehigarriak onartu; hain zuzen ere, antolakuntza, erakunde eta kontratuen esparruetan. Horrekin guztiarekin, kirolaren aurkako jarrerak errotik kentzeko neurriek bateragarriak izan behar dute proportzionaltasun-printzipioarekin, dopinaren kontrako borroka berez laudagarria izan arren kirolarien osasuna babesteko. Horretarako, proposatutako sistemek zeharo bat egin behar dute legezkotasunarekin, eta ezinezkoa izan behar du kirolarien oinarritzko eskubideak urratzeko jokaerak agertzeak (Punzón eta Sánchez, 2009: 141-158) horiek betearazten direnean; batik bat, hementxe jorratutako intimitaterako eskubideari dagokionez, eta hori ulertu behar da esangura zabalean.

Argudio horien aurrez aurre agertzen da doktrina (*cf.* Fernández de Casadevante, 2014: 90-91): horren aburuz, Espainiako lege-jarduerak paraleloan jarraitu ditu Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren eskakizunak kirolariak lokalizatzeke; dena dela, adierazi behar da Espainiako botere legegileak ez duela inoiz amore eman, erakunde horren nahia baitzen kirolarien lokalizazioa beste edozeren aurretik lehenestea. Zentzu horretan, kirolariak eman beharreko informazioa dela-eta, uste dugu araudiko bitartekoen eta xedeen arteko proportzionaltasuna lortu dela; batez ere, lokalizazio iraunkorreko betebeharrak bidegabekoa eta justifikaziorik gabekoa zuzendu eta gero. Halaxe ezarri zen, hasiera batean, Espainiako Kirol Kontseilu

---

16. Ikus Molina, 2010: 69-76. Ildo horri jarraitu zion honako egile honek: Viñuelas, 2007: 72-74.

17. Oso argigarria da ADAMS sistemaren —txirringularitza-zirkuituaren barruan— konparazioa «Gran Hermano»-rekin, nonahi dagoena eta den-dena ikusi zein kontrolatzen duena. Ikus doktrinaren hurrengo talde-lanak: Christiansen, 2009, eta prentsan: «ADAMS, el nuevo “Gran Hermano” del ciclismo», *Diario Vasco*, 2008ko urtarrilaren 23a. Eskuragarri honako estekan: <<http://www.diariovasco.com/20080123/deportes/adams-nuevo-gran-hermano-20080123.html>> [azkenengo kontsulta: 2018ko ekainaren 15a].

Goreneko (CSDeko) Presidentetzaren ebazpenean, 2009ko apirilaren 30ekoan, eta horri laster batu zitzaion erakunde bereko 2013ko otsailaren 4ko ebazpena, kirolariak lokalizatzeko inprimakia onetsi zuena<sup>18</sup>, bi-biak indargabetu ziren arte.

Hala ere, desoreka horrek zentzu oro galtzen du: Dopinaren Aurkako Munduko Agentziaren arautegiak ezartzen du Espainiakoa baino lokalizazio-betebehar askoz gogorragoa. Horrek esan nahi du kirolariak hori derrigorrez onartu behar duela, baldin eta Agentzia horrek araututako norgehiagoketan parte hartu nahi badu. Zehatzago esanda, 2012ko *International Standard for Testing*-eko 11.1.3, 11.1.4 eta 11.3 artikuluek eskatzen dute informazio askoz ere xeheagoa ematea. Era horretan, Espainiako legegintzaren babesaz harantzago joango litzateke, nahiz eta 3/2013 Legea ohiko lokalizazioari buruz aritu araudiaren araberrako hitzetan.

---

18. Espainiako Auzitegi Nazionalaren epaiak (administrazioarekiko auzibide gela, seigarren atala), 2014ko ekainaren 24koak (138/2013 Errek.), aldarrikatu zuen aurkaratutako ebazpenaren bigarren eranskina gehiegizkoa zela lege eta erregelamendu (641/2009 EDren 45.1 artikulua) edukien neurria gainditzeagatik eta hausteagatik; izan ere, eranskin horrek galdatzen zuen lokalizazio iraunkorrek ez ohiko betebeharra, 7/2006 LO zenaren 5.3 artikulua ezarritako moduan (gogora ekarri behar da *ohiko lokalizazio* hitza jasotzen dela indarreango 3/2013 LOren 11.3 artikuluan). Beraz, adierazi behar da inprimakiaren edukia deuseza dela, noizean behin lokalizatzeko betebeharrari dagokionez. Ikuspuntu horretatik, epaiak ohartarazi zuen gehiegizko neurria zela eta intimitaterako eskubidearen kontrakoa: legeak ez du hori inondik inora babesten. Horretarako, arrazoitu zuen kirolariak kontrol iraunkorrak jasan behar dituela urteko jardunaldi eta ordu guztietan; horregatik, *ohiko* kontzeptuaren ulerkeratik haratago doa, gehiegizko neurria da, intimitaterako eskubidearen aurkakoa eta legearen babesik gabekoa. Alabaina, epaiak ontzat hartu zuen dopinaren kontrako kontrolen legezkotasuna; batik bat, lehiaketatik kanpoko sasoiaren, non dopinerako tratamenduak ugariagoak izan daitezkeen, kontrolatzeko zailtasunei lotuta. Horrekin batera, onartu zuen kirolaria lotzeko betebehar berezia dagoela, federazio-lizentziaren titularra den heinean. Edonola ere, jokabide hori parekatu daiteke zigor-izaerako lokalizazio iraunkorrek, nahiz eta hori bakar-bakarrik ezar daitezkeen delitu baten ondorioz. Horrekin guztiarekin, eta erabakiarekin bat etorritik, esku sartzea suposatuko luke lokalizazio iraunkorrak, eta horrek ez luke errespetatuko intimitaterako eskubidearen funtsezko edukia. Auzitegi Nazionalaren epaiari buruzko testua osoa aurki daiteke honako iruzkin honetan: «La Audiencia Nacional anula el formulario de localización de los deportistas», *lusport* (REDACCIÓN LUSPORT), 2014ko uztailaren 2a. Eskuragarria esteka honetan: <<http://iusport.com/not/2432/la-audiencia-nacional-anula-el-formulario-de-localizacion-de-los-deportistas/>> [azkenengo kontsulta: 2018ko ekainaren 15a]. Horren amaiera gisa, Auzitegi Gorenaren epaiak, 2016ko uztailaren 28koak, behin betiko deuseztatu zuen Espainiako Kirol Kontseilu Goreneko Presidentetzaren 2013ko otsailaren 4ko ebazpenaren bigarren eranskina, kirolariak lokalizatzeko inprimakia onartu zuena (kontrolen bana-banakako planean sartuta). Hortaz, Auzitegi Nazionalaren 2014ko ekainaren 24ko epaiak berretsi zuen, ulertu baitzuen, eranskin hori aplikatzekotan, kirolariak lokalizazio iraunkorra pairatuko zuela; hori dela-eta, kirolariaren intimitaterako eskubidea erasango litzateke eta 3/2013 Lege Organikoaren edukia gaindituko litzateke —ekainaren 20ko LO, kirolariaren osasuna babesteko eta kirol-jardueran dopinaren aurka borrokatzeko—. Ikus Atienza, 2017: 319-335.

#### 4. Erreferentzia bibliografikoak

- Amilibia Perez, G. (2012): «El pasaporte biológico: luces y sombras. ¿Todo vale?», *Iusport*, 2012ko apirila. Eskuragarri hurrengo estekan: <<http://www.iusport.es/images/stories/autores/Guillermo-Amilibia-pasaporte-biologico-2012.pdf>> [azkenengo kontsulta: 2018ko ekainaren 15a].
- Atienza Macías, E. (2017): «Sobre la colisión que desencadena el control antidopaje con el derecho a la intimidad del deportista. ¿El Alto Tribunal pone fin al debate “localización habitual versus localización permanente”? Comentario a la Sentencia del Tribunal Supremo, Sala de lo Contencioso-Administrativo, Sección Cuarta, de 28 de julio de 2016», *Revista Aranzadi de Derecho del Deporte y Entretenimiento*, 54, 2017ko urtarrila-martxo.
- Christiansen, A.V. (egilea) (2009): *Kontrolsport: Big Brother blandt atleter og tilskuere*, University of Southern Denmark Studies in History and Social Sciences, 385. bol., Odense, Danimarka.
- Cortés Bechiarelli, E. (2007): *El delito de dopaje*, Tirant lo Blanch Argitaletxea, Valentzia, Espainia.
- De La Iglesia Prados, E. (2014): *Derecho Privado y deporte. Relaciones jurídico-personales*, Reus Argitaletxea, Madril, Espainia.
- Elbea, A-M. eta Overbye, M. (2014): «Urine doping controls: the athletes' perspective», *International Journal of Sport Policy and Politics*, 2, 6. bol.
- Fernández de Casadevante Mayordomo, P. (2014): «Derecho a la intimidad y dopaje», *Revista Aranzadi de Derecho de Deporte y Entretenimiento*, 43.
- Gilbert, S. (2010): «The Biological Passport», *Hastings Center Report*, 2, 40. bol.
- Gleaves, J. (2010): «What to do once they're caught», in J. Ilundain-Agurruza eta M.W. Austin (egileak), *Cycling - Philosophy for Everyone: A Philosophical Tour de Force*, Wiley-Blackwell, Malden, AEB.
- Gómez Rivero, C. (2011): «Secreto profesional (jurídico)», in C.M. Romeo Casabona (zuz.), *Enciclopedia de Bioderecho y Bioética*, bigarren liburukia, Zuzenbide eta Giza Genomako Unibertsitate arteko Katedra - Comares Argitaletxea, Bilbo-Granada, Espainia.
- Hunter, M. (2011): «Would-be cheats face barrage of tests by army of antidoping scientists at London Olympics», *British Medical Journal*, 7.823, 343. bol., 553.
- Kirolean Osasuna Babesteko Espainiako Agentzia (AEPSAD) (2014): «¿Qué es el Pasaporte Biológico?», *Dopaje: lo que debes saber*, 2014ko azaroa. Eskuragarri honako estekan: <<http://blog.aepsad.es/que-es-el-pasaporte-biologico/>> [azkenengo kontsulta: 2018ko ekainaren 15a].
- Molina Navarrete, C. (2010): *Nadal contra los «vampiros» de la AMA: la lucha por el derecho a la intimidad en la relación deportiva profesional*, Aranzadi Argitaletxea, Zizur Txikia (Nafarroa), Espainia.
- Nicolás Jiménez, P. (2006): *La protección jurídica de los datos genéticos de carácter personal*, Cátedra Interuniversitaria de Derecho y Genoma Humano - Comares Argitaletxea, Bilbo-Granada, Espainia.
- Punzón Moraleda, J. eta Sánchez Rodríguez, F. (2009): «Una situación ambivalente del derecho de deporte: la lucha contra el dopaje y la defensa del derecho de intimidad», *Revista Aranzadi de Derecho de Deporte y Entretenimiento*, 26.
- Rodríguez García, J. (2011): «El deber de localización de los deportistas y su derecho a la intimidad: especial referencia al consentimiento», *Revista Aranzadi de Derecho de Deporte y Entretenimiento*, 31.
- Romeo Casabona, C.M. (2003a): «La protección penal del secreto profesional y laboral en el Derecho español», in E.O. Octavio de Toledo y Ubieto, M. Gurdíel Sierra eta E.

- Cortés Bechiarelli (koord.), *Estudios penales en recuerdo del Profesor Ruiz Antón*, Tirant Lo Blanch Argitaletxea, Valentzia, Espainia.
- Romeo Casabona, C.M. (2003b): «La intimidad y los datos de carácter personal como derechos fundamentales y como bienes jurídicos penalmente protegidos», *Datospersonales.org: La Revista de la Agencia de Protección de Datos de la Comunidad de Madrid*, 2.
- Sanchis-Gomar, F.; Martínez-Bello, V.E.; Gómez-Cabrera, M.C. eta Viña, J. (2011): «Current limitations of the Athlete's Biological Passport use in sports», *Clinical Chemistry and Laboratory Medicine*, 9, 49. bol.
- Teixeira Silveira, V. eta Rigo, L.Z. (2015): «O programa passaporte biológico: considerações sobre o governo dos atletas», *Movimento*, 2, 21. bol. 2015eko apirila-ekaina.
- Vernec, A. R. (2014): «The Athlete Biological Passport: an integral element of innovative strategies in antidoping», *British Journal of Sports Medicine (BJSM)*, 10, 48. bol., 2014ko maiatza. Eskuragarri honako esteka honetan: <<http://bjsm.bmj.com/content/48/10/817.info>> [azkenengo kontsulta: 2018ko ekainaren 15a].
- Viñuelas Zahínos, M.T. (2007): «Análisis jurídico de los controles sorpresa de dopaje», in E. Bosch Capdevila eta M.T. Franquet Sagrañes (koord.), *Dopaje, fraude y abuso en el deporte*, Bosch Argitaletxea, Bartzelona, Espainia.
- Viret, M. (2015): «Athlete Biological Passport: a paradigm shift?», *Evidence in anti-doping at the intersection of Science & Law*, Springer - ASSER International Sports Law Series, Berlin (Alemania).
- Zorzoli, M.; Pipe, A.L.; Garnier, P.-Y. eta Dvorak, J. (2014): «Practical experience with the implementation of an athlete's biological profile in athletics, cycling, football and swimming», *British Journal of Sports Medicine (BJSPM)*, 10, 48. bol.

